



LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako
Idazkaritza Nagusia
Europako Gaietarako Zuzendaritza

PRESIDENCIA

Secretaría General de
Acción Exterior
Dirección de Asuntos Europeos

**Kontseilu Europarraren ohiz kanpoko Bilera (EBTaren 50. artikulua)
Harturiko Orientazioei buruzko Oharra
Brusela, 2017ko Abenduaren 15a**

Europar Batasuna (EB) osatzen duten 27 Estatueta Estaturu eta Gobernuburuak (guztiak Erresuma Batua ezik) 2017ko abenduaren 15ean bildu ziren, Kontseilu Europarraren Presidenteak proposatutako Orientazioak eztabaidatzeko, Erresuma Batuko eta Erresuma Batuko negoziatzaile-taldeek – abenduaren 8an – negoziaketan hurrengo urratsera pasatzeko beharrezko diren aurrerapen nahikoak egin direla adostu ostean.

Bilera horretan, Kontseilu Europarrak honoko Orientazioak adostu zituen:

1. Kontseilu Europarrak begi onez ikusten ditu negoziazioen lehenengo fasean lortutako aurrerapenak. Hauek Europako Batzordearen Komunikazioan¹ eta Txosten Bateratuan² islatzen dira. Erabaki du aurrerapen hauek nahikoak direla bigarren fasera pasatzeko, hau da, trantsizioari eta etorkizuneko harremanaren egiturari dagokien fasera pasatzeko. EBko negoziatzaileari eta Erresuma Batuari eskatzen die – 2017ko apirilaren 29ko Kontseilu Europarraren Orientazioek ezarritakoaren arabera – erretiratzearekin erlazionatuta dauden gaiak buruzko lanak bukatu ditzatela, oraindik lehen fasean aboratu ez diren gaiak barne, orain arte lortutako emaitzak finkatu ditzatela, eta EBtik Ateratzeko Akordioaren atal garrantzitsuen proiektua itxuratzen has daitezela. Azpimarratzen du, halaber, negoziazioek bigarren fasean aurrera egiteko modu bakarra dela lehenengo fasean hartutako konpromisoak osorik errespetatzea eta ahalik eta arinen termino juridikotan fideltasunez islatzea.

Balorazioa:

Hainbat hilabete iraun duten negoziaketa sakonen ostean, Erresuma Batuko eta Europar Batasuneko talde negoziatzaileek Brexit-ari buruzko negoziaketetan aurrerapausuak emateko akordioa lortu zuten 2017ko abenduaren 8an. Europar Batasunak eta Erresuma Batuak lehen fase honetan aztertzeke finkatutako hiru gai nagusien inguruan konsentsua lortu da:

1. *Herritarren eskubideak:*

Herritarren eskubideak osorik mantendu behar dira.

EBtik atera baino lehen Erresuma Batura iritsitako herritar guztiek – gaur egun, ia 3,5 milioi pertsona – jarraitu ahal izango dute bertan lehen bezala lan egiten edo ikasten;

¹ https://ec.europa.eu/commission/sites/beta-political/files/1_en_act_communication.pdf

² https://ec.europa.eu/commission/sites/beta-political/files/joint_report.pdf

gauza bera gertatuko da EBko herrialdeetan bizi diren britainiar pertsonekin – gaur egun, ia 1,5 milioi pertsona dira –.

Gainera, europar herritarrei bizileku iraunkorra eskaini behar zaie britainiar lurretan. Halaber, familia berriz bateko eskubidea mantenduko dute osorik. Seme-alabek eskubide hori izango dute beti (gurasoekin elkartzeko), Brexitaren ostean jaio arren.

Negoiazio horren ondorioz, pertsona horiek orain arte izan dituzten gizarte-onurak eskuratzen jarraituko dute, eta euren egoera modu koherentean erregularizatu ahal izango dute. Osasungintzari eta pentsioei dagozkien eskubide guztiak eta gizarte-segurantzaren gainerako prestazioak mantenduko dituzte, baita Brexitaren ostean ere.

Egoera erregularizatzeko prozedura administratiboak errazak eta merkeak izango dira Erresuma Batuan bizi diren EBko herritarrentzat.

Bukatzeko, Erresuma Batuan bizi diren europar herritarren eskubideek bermatuta egoten jarraituko dute europar justiziaren bitartez, eta EBko Justizia Auzitegiak (EBJA) jarraitu ahal izango du sortzen diren gatazkek ebazten.

Horrek esan nahi du Erresuma Batuan bizi diren EBko pertsonak eta EBko herrialdeetan bizi diren britainiarrek europar instituzioetara jo ahal izango dutela eskubide horiek defendatzeko. Gainera, britainiar auzitegiek ere EBko pertsonen eskubideak betearaziko dituzte Erresuma Batuaren barnean.

Azken puntu hau honela zehazten da: britainiar epaileek EBJAren jurisprudentzia hartu beharko dute kontuan Brexiten ostean ere. Horretarako, mekanismo bat ezarriko da britainiar auzitegiek EBJAra jo ahal izan dezaten interpretazio-kontuetarako; mekanismo horrek zortzi urteko iraupena izango du ateratze-akordioa indarrean sartzen denetik. Horrek esan nahi du EBJAk jarraituko duela autoritate gorena izaten Erresuma Batuan, gutxienez hurrengo zortzi urteetan. Beraz, EBk izango du azken hitza.

2. Irlanda eta Ipar Irlanda

Hau izan da akordioa azken unera arte arriskuan jarri duen asuntua, gai honek Erresuma Batuaren barne-politikan sortzen dituen tentsioen eraginez. Are gehiago, abenduaren 4an, EB eta Erresuma Batua akordio bat lortzetik gertu egon ziren, baina guztiak porrot egin zuen May Lehen Ministroak EBk proposatutako irtenbidea DUPEkin kontsultatu zuenean. DUP – Alderdi Demokratiko Unionista – bere aliatua da, gobernatzeko itun bat sinatu zuen Mayrekin, ekaineko hauteskunde aurreratueta gehiengo nahikorik lortu ez izanaren ondorioz. Bada, proposatutako irtenbidea onartezina zen alderdi horrentzat, honek goitik behera gaitzesten baitu Ipar Irlandako lurraldeari tratu desberdina ematen dion proposamen oro. Euren beldurra da Ipar Irlandaren eta Irlandaren arteko muga malgutzen duen edozein xehetasun pizgarria izatea uhartea epe luzera birbatzeko desiorako.

Abenduaren 8an, ordea, DUPEk kontsideratu zuen EBrekin adostutako testu berriak Ipar Irlandaren osotasun konstituzional eta ekonomikoa bermatzen duela Erresuma Batuaren barruan.

Akordioa sei puntutan laburbiltzen da, eta zalantza asko uzten ditu irekita akordioa praxira eramateko moduaren inguruan.

- i. Ez da berriz ezarriko bi herrialdeen arteko muga “gogorra”. Beraz, ez da aduana-posturik berrezarriko mugaren 500 kilometroetan, merkatu bateratua 1993an indarrean sartu aurretik gertatzen zen bezala. Muga zorrotz batek azpiegitura eta kontrol fisikoak ezar litzake.*
- ii. Ipar Irlanda merkatu bateratutik eta aduana-batasunetik aterako da, Erresuma Batuen gainerako lurraldeak bezala. Beraz, ez du tratamendu diferentzialik jasoko, ezta estatus berezirik ere izango ere, bere berezitasun geografiko eta historikoengatik.
Gaur egun, ezin da jakin nola bateratuko diren bi baldintza hauek, hau da, merkatu bateratutik eta aduana-batasunetik kanpo egotea eta muga zorrotzik ez egotea.*
- iii. Britainiar Gobernuak konprometitzen da Ipar Irlandaren estatusa defendatzera, “Erresuma Batuko zati integral” gisa, eta adierazten du ez dela inoiz ere neutrala izango “(erresumaren) batasunaren aldeko sostengua” adierazterakoan.*
- iv. “Lankidetzaren eremu” batzuk ezarriko dira bi Irlanden artean, eta eremu horietan beharrezkoa izango da arauak eta estandarrak bateratzea edota amankomunean jartzea. Nolanahi ere, ez da zehazten zer-nolako bateratzeak izango diren beharrezkoak eta hau nola izango den bideragarria merkatu bateratutik eta aduana-batasunetik kanpo. Ez da inolako muga erregulatzailerik onartuko Ipar Irlandaren eta Erresuma Batuen artean.*
- v. 1998ko Ostiral Santuko Akordioetan ezarritako konpromisoak eta babesak mantentzen dira, iparraldearen eta hegoaldearen arteko lankidetzari eusteko Brexitaren ostean.*
- vi. Erresuma Batua osoa (Ipar Irlanda barne) geratuko da Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisdikziotik kanpo.*

3. Finantza-akordioa.

Erresuma Batuko Gobernuak EBri ordaindu beharko dio beraren kide zenean hartu zituen eta EBtik ateratzean gehiago beteko ez dituen konpromisoengatik.

Horrek esan nahi du Erresuma Batuek jarraituko duela bere ekarpenak EBko aurrekontuari egiten 2020ra arte, EBko osoko kide izaten jarraituko balu bezala.

Zenbateko horretan etorkizuneko betebeharrak ere sartzen dira, hala nola britainiar pasaportearen duten europar funtzionarioen pentsioak.

Zenbatekoa ez da zehazten akordioan; EBko iturrien arabera, zenbatekoa ez da garrantzitsua. Benetan garrantzia duena Erresuma Batuek orain hartzen dituen konpromiso guztiak errespetatzea baita.

Izan ere, zenbateko konkretua aldagai askoren menpe egongo da, hau da, hazkunde ekonomikoa, diru-sarrerak eta beste adierazle batzuk, besteak beste. Fakturaren behin betiko zenbatekoa Erresuma Batua EBtik irteten denean ezarriko da, 2019ko martxoan. Dena dela, negoziazioak ezagutzen dituzten iturri batzuen arabera, zenbatekoa 45.000

eta 50.000 milioi euro bitartekoa izan liteke, hau da, EBak kalkulaturakoa baino gutxiago – 60.000 milioi euro –, baina Erresuma Batuak hasieran eskainitakoa baino askoz ere gehiago – 20.000 milioi euro –.

Theresa May Lehen Ministroak adierazi zuen Brexitaren faktura deritzanaren inguruko akordioa bidezkoa dela britainiar zerga-ordaintzaileentzat, eta horrek ahalbidetuko diola herrialdeari etorkizunean gehiago inbertitzea bere lehentasun nazionaletan.

2. Bigarren faseko negoziazioetan, Kontseilu Europarrak 2017ko apirilaren 29an onartu zituen Orientazioak bere osotasunean aplikagarri izaten jarraitzen dute eta errespetatu egin behar dira.
3. Trantsizioari dagokionez, Kontseilu Europarrak kontuan hartzen du Erresuma Batuak egindako proposamena, hau da, bi urte inguruko trantsizio-aldi bat egotea, eta ontzat ematen du EBko lege-corpus osoa barne hartuko duen trantsizio-aldi bat negoziatzea; bitartean, Erresuma Batuak, hirugarren herrialde gisa, EBko instituzioetan eta kideen izendapen nahiz aukeraketan parte hartzeari utziko dio; era berean, ez du Batasunaren erabaki organoetan eta organismoetan parte hartuko.
4. Horrelako konponbide iragankorrak EBtik Ateratzeko Akordioaren parte izango dira, EBren intereserako, garbi definitu beharko dira eta epemuga jakin bat zehaztua izatea. Merkatu Bateratu osoan aplikatzen diren arau berberetan oinarritutako baldintza-berdintasuna bermatzeko, EBko erakundeek, organuek eta organismoek EBko zuzenbide ondareari eginiko aldaketak bai Erresuma Batuan eta baita EBn ere aplikatu beharko dira. Era berean, Europar Batasunean, erregulazio, aurrekontu eta ikuskapenaren alorrean, eta baita alor juridiko eta betearazlean indarrean dauden tresna eta egitura guztiak ere aplikatu beharko dira, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren eskumena barne. Trantsizioak dirauen bitartean Erresuma Batuak Aduana Batasunaren eta Merkatu Bateratuaren kide izaten jarraituko duenez (lau askatasunekin), EBren politika komertziala aplikatzen jarraitu beharko du, baita EBko aduana-tarifak aplikatzen eta biltzen jarraitu ere. Hirugarren herrialdeei dagokienez, mugatan EBko kontrol guztiak gauzatu egiten direla bermatu beharko du.
5. Kontseilu Europarrak eskatzen dio Batzordeari horri buruzko gomendio egokiak aurkeztu ditzala; eta Kontseiluari eskatzen dio trantsizio-prozesuari buruzko negoziatorako gidalerroak 2018ko urtarrilean onar ditzala.
6. Kontseilu Europarrak berresten du lankidetzat estua ezarri nahi duela EBren eta Erresuma Batuen artean. Etorkizuneko harremanaren inguruko akordioa Erresuma Batua hirugarren herrialde bilakatu denean soilik itxi daiteke; hala ere, Europar Batasuna prest dago –etorkizuneko erlazioari buruzko markoaren inguruan adostasun orokorra definitzeko asmoz – aurretiazko eta prestatze elkarrizketak hasteko, horretarako orientazio berriak adostu bezain laster. Adostasun orokor hori EBtik Ateratzeko Akordioari lotuta joango den deklarazio politiko batean garatuko da, Akordioan bertan deklarazioari aipamena eginaz.

7. Europar Batasunak kontuan hartzen du Erresuma Batuak adierazi duela Aduana Batasunetik eta Merkatu Bateratutik ateratzeko asmoa duela trantsizio-aldiaren amaieran; hori horrela, Kontseilu Europarrak baloratuko du zer ikusmolde hartzen duen lankidetzakomertzial eta ekonomikoaren inguruan, jarrera horren argitan, helburu hauek lortzeko: eskubideen eta betebeharren arteko oreka bermatzea, baldintza-berdintasuna babestea, hirugarren herrialdeekin existitzen diren harremanei kalterik ez egitea, eta 2017ko apirilaren 29ko orientazioetan ezarritako gainerako printzipio guztiak errespetatzea, bereziki Merkatu Bateratuaren osotasuna eta funtzionamendu egokia babesteko beharra.
8. Kontseilu Europarrak berresten du prest dagoela asoziazioak/elkarteak sortzeko merkataritzarekin eta lankidetzak ekonomikoarekin lotuta ez dauden eremuetan, bereziki terrorismoaren eta nazioarteko delinkuentziaren aurkako borrokan, eta baita segurtasun, defentsa eta atzerri-politikaren alorretan ere.
9. Kontseilu Europarrak negoziazioen jarraipen hurbila egiten jarraituko du, eta orientazio gehiago hartuko 2018ko martxoan, batez ere etorkizuneko harremanaren egiturari dagokionez. Erresuma Batuari eskatzen dio gehiago argitu dezala zer jarrera duen etorkizuneko harremanaren egiturari buruz. Kontseilu Europarrak eskatzen die Kontseiluari (50. art.) eta EBko negoziatzaileari barneko prestatze-etzabaidekin jarraitu dezatela, bereziki etorkizuneko erlazioari buruzko markoaren esparruari buruz.